

txintxarri



Bultzada gero eta jendetsuagoa

Errugbia indarra hartzen ari da herrian. Jokalari ugari ari dira maila altuetan lehiatzen; harrobia ere indartsu dator / 6-9

TXINTXARRI

Zerbitzu publikoen alde

Autobusen murrizketen aurka 7.000 sinadura erregistratuko dituzte asteartean / 4

Erraustegiaren aurkako Donostiako manifestaziora joateko deia egin du Aire Garbiak / 5

Ostadar Inklusioak eslamon jardunaldiak egingo ditu igandean, Maialen Chourraut kiroldegian / 10

Konkretu izazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Etingo da beste eskaintza batzuen erabiltzearekin.



VARILUX
MUNDU MAILAN LEHENA LEIAR PROGRESIBOETAN

ZURE 2. LEIAR PROGRESIBOAK **BARNE**

Arrasate • Beasain • Bergara • Donostia
Eibar • Errenteria • Irun • Ordizia • Tolosa

VARILUX SOLUTION DRIVE

VARILUX SOLUTION SUN

VARILUX SOLUTION DIGITAL



Gure betaurreko guztiak 2018 bildumakoak dira

www.multioplicasgipuzkoa.com

R.P.S. 175/15 I.L.G.

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Kale Nagusia, 15 • Tel.: 943 37 74 55 • LASARTE-ORIA

Sasoetako lokalen eraisketa martxan da

Lasarte-Oriako Udalak Jaizkibel plazako lokalen eraisketa eta berrurbanizatze proiektuak esleitu ditu. Injelan enpresak idatziko ditu proiektuak; kostua 21.477,50 euroko da. Jesus Zaballos alkateak eta Agustin Valdivia Hirigintza saileko arduradunak eman dute adjudikazioaren berri

Txintxarri

Sasoeta auzoko San Marcial, Uzturre eta Jaizkibel plazetako lokalen eraisketaren fase berria aurrera eramango du udalak. Jesus Zaballos alkateak horrela azaldu du agerraldian: "Sozialistek bere garaian arau subsidiarioen bitartez, eremu horretako hainbat lokal ordenazioz kanpo utzi zituen. Gure helburua auzoan zeuden puntu beltzak desagerraraztea zen".

Lehen fasea, San Marcial eta Uzturre plazen berrurbanizatzea, "azken xehetasunen faltan" amaitu da. "Herritarrak oso pozik agertu dira bertan egin diren kirol eremu eta atseden eremuarekin", esan du Zaballos alkateak.

Orain, Jaizkibel plazaren txanda izango da. Bertan etxe artean dauden patioetako lokalak eraitsiko dituzte.

Jaizkibel plazako lanen proiektuei buruz hitz egin baino lehen, alkateak San Marcial eta Uzturre plazak berrurbanizatzerako orduan EH Bilduren kudeaketa "txarra" izan zela salatu du.

Berrurbanizazio proiektua

"Legealdia hasi genuenean Uzturre eta San Marcial plazetako eraispenak egiten ari zirela aurkitu ginen. Gainera, denbora luzez geratua egon behar izan zen, amiantoa aurkitu zen eta. Horretaz gain, ez zegoen zehaztua zer egingo zen. Berrurbanizatze proiektua eta gauzatzea esleitu behar izan genien bi enpresari. Beraz, lau enpresa behar izan ziren guztia egiteko".

Hori ekidin nahian, fase hau aurrera eramateko gobernuak bi esleipen egingo ditu. Lehenik proiektuak, eta ostean lanak.

Era honetara, prozesua jarraian egitea espero du udalak.

Lanak egiteko eskaintza

Udal ordezkariak jakitera eman dutenez, lau enpresari egin zaie eskaintza lokalen eraisketen eta berrurbanizatze proiektua gauzatzeko; Injelanekin egin du proposamen onena. Bi proiektuek 21.477,50 euro kostua izango dute.

Alkateak esan du udalak enpresarekin batera lan egingo duela. Agustin Valdiviak azpimarratu duenez, herritarren eskaerak kontuan hartuko dira. "Sasoeta Sasoitu" prozesuan herritarrek egindako eskaerak kontuan izango dira proiektua idazterako orduan. Esate baterako, plaza inguratzen duen portxea mantendu behar dute".

Alabaina, 15B partzelan, Joredoren biltegia eta Gabirondo altzarrien erakusleihoaren



Eraitsi behar duten lokaletako bat. TXINTXARRI

eremuan, etxebizitzaren azpian dauden garajeetako larrialdietako irteera utzi behar da; horrek eremu horretako berrurbanizatzea baldintzatuko du.

Honetaz gain, San Marcial eta Uzturre plazen eraispenetan amiantoarekin jazotako arazoak ekiditearren, gai kimiko kutsakor hori tartean dagoen jakiteko azterketak egingo dituzte.

Era berean, udalak proiektua ontzat ematean, herritarrei erakutsiko die, beste lanetan egin duten antzera.

Etorkezuneko lanei eta horiek sor ditzaketen eragozpenen harira, Jaizkibel plazaren erabilera kontuan izanik, lanak egiten dituen enpresari koordinazio plan bat eskatuko dio Hirigintza sailak, "herritarrei ahal den gutxien eragiteko".

Halere, alkateak aurreratu du "zaila" izango dela traba guztiak saihestea. Fase honen ostean, Sasoeta auzoko eremu honetako berritze lanak amaitutzat emango dituzte.

Ile apainketako eta estetikako azken joeren erakusleiho

Aterpea merkatarien elkartearen eskutik, ile apainketa eta estetika erakustaldia egingo dute larunbatean, lehenengoz

Txintxarri

Lasarte-Oriako ile apaintzaileek eta estetika zentroetako langileek egiten duten lana erakusteko, desfilea eta erakustaldia antolatu du Aterpeak. Lehenengo Ileapainketa eta Estetika jardunaldia egingo da, larunbatean. Manuel Lekuona kultur etxean izango da hitzordua, 18:30ean.

Desfilearekin batera, zuzeneko bi erakustaldi ere egingo dituzte. Marbell ileapaindegiak, Christian estilistak, Marian Olaizola ileapaintzaileak eta Ana gizezkoen ileapaindegiak egingo dute erakustaldia. Baina

horiekin batera, Aritza mertzeriak, Alba, Mabel eta Imagine jantzi dendek, Ormazabal loradendak eta Ola markogintzak ere parte hartuko dute ekitaldian.

Desfileko protagonistak

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, dagoeneko aukeratuta dituzte desfilean modelo gisa arituko diren pertsonak; 30-35 modelo arituko dira larunbateko jardunaldian.

Jardunaldi honen bitartez, Lasarte-Oriako bezeroei erakutsiko dizkiote ileapainketa eta estetikako azken joerak. Baina ohiko bezeroez gain, bezero

berriak erakartzeko ere balioko duela uste du Aterpeak. Horretarako, Lasarte-Oriaren irisgarritasun egokia baliatu behar dutela nabarmendu du Ramon Ormazabal merkatarien elkarteak lehendakariak: "Lasarte-Oriak oso garraio sare ona du, eta hortaz baliatuta, herriko bezeroez gain, ingurukoak erakartzeko lehen pausoa da jardunaldia". Bezero guztiei Lasarte-Oriako ile apaindegi eta estetika zentroek egiten duten "lan ona" erakusteko aukera da, Ormazabalen ustez.

Mende laurden herrigintzan

Hogeita bost urteko ibilbidea du merkatarien elkarteak, eta urte horietan guztietan herrigintzan lanean aritu dira. Hogeita bost urte herrigintzan zurekin leloa erabili dute orain arte egindakoa definitzeko: "Herriarekin egin dugu lan



Aterpeko kideak, jardunaldiaren aurkezpen agerraldian. TXINTXARRI

hogeita bost urtetan, Lasarte-Oriako ekonomian eraginez, eta hori da jarraitu beharreko bidea". Ekitaldira sartu ahal izateko, gonbitea eskuratu behar da, kultur etxean.

Antolatzaileek eskerrak eman dizkiote Lasarte-Oriako Udalarri, Eusko Jaurlaritzako merkataritzan

sailari eta baita *Tratu on bat* markari, jardunaldi hau aurrera eramateko emandako laguntzagatik.

Jesus Zaballos alkateak ere esker hitzak izan ditu parte hartzaileekin. Herriko komertzioa bultzatzeko ekitaldiari babesa agertu dio.

Literaturaren eta bertsoen fragantziak

Lasarte-Oriako Literatura Txokoak bertso afari literarioa egin du, laugarren urtez. Ane Labaka, Nerea Ibarzabal eta Uxue Alberdi aritu dira kantuan; Lander Garro idazleak jarri ditu gaiak. Lepo bete da Xirimiri elkartearen aurten ere

Iñigo Gonzalez

"Liburu definitiboak irakurlea behar du", bota du Uxue Alberdik bertsoetako batean. Liburuek, irakurleak; bertso afariak, ikus-entzuleak. Literatura Txokoak Lasarte-Orian antolatzen duenak bermatuta dauzka. Are gehiago saioak atzokoa bezalako mailakoak direnean: bertsoen eta literaturaren esentzien poteak ireki, eta fragantziak atera ziren kanpora. Geratu ziren herritarren jantzieta, baina baita buru eta bihotzetan ere. Ederki aritu ziren Ane Labaka, Nerea Ibarzabal eta Uxue Alberdi kantuan; Lander Garro idazlea arduratu zen gaiak jartzeaz.

Hilero-hilero elkartzen dira Literatura Txokoko kideak, hilabete bakoitzeko hirugarren asteartean, Ttakunenean. 18:30ean elkartzen dira, eta saio bat eta bestearren artean irakurri duten liburuari buruz hitz egiten dute, giro ederrean. Kide ia guztiak egoten dira present, baina ez denak. Aitzol Iriondo preso daukate herritik 700 kilometrora, eta fisikoki joan ezin badu ere, gainontzeko kideak arduratzen dira saioak grabatzeaz eta berari bidaltzeaz. Iriondok hilabetearen hilabeteko



Abe Labaka, Nerea Ibarzabal eta Uxue Alberdi aritu ziren bertsoetan. TXINTXARRI

liburua irakurtzen du, eta, ondoren, hausnarketak grabatu eta Literatura Txokora bidaltzen ditu.

Emozioak dantzan

Larunbateko bertso afari literarioan ere egon zen presente "Irakurle Txokoko ikasle finena", Liher Unanue kideak sarreratxoan azaldu zuenez, umorez. Lau minutuko audio bat prestatu zuen Iriondok, eta hara bidali, ikus-entzuleek entzun zezaten. Azken hiru urteetako saioetako

hainbat fragmentu hartu, eta puzzle bitxi eta hunkigarria osatu zuen Iriondok. "Momentu eder asko oroitu ditugu pieza honi esker", esan zuen Unanuek. Emozioak, beraz, saioa hasi aurretik hasi ziren dantzan.

Emozioen aurretik, ordea, platerak, sardeskek eta labanek dantzatu zuten. Afari goxoa dastatu zuten Xirimiri lepo bete zuten ehun bat ikus-entzuleek: arroza rissotto erara, txahal biribilkia saltsan, eta hostopil tarta. Ostean, kafeak eta kopak.



NEURE KABUZ

UNAI MUÑOA

Iritzeko beldurrez

Uniformazio ideologikoarekin kezkatuta nago aspaldian. Badakit ez dela berria, badakit moralak eta ideologiak beti mugatu dutela pertsona, askea eta bakana izateko bidean, behinik behin. Norbere iritzia emateko beldurrez sentitzen bagara, benetan sinetsi behar dugu demokrazia batean bizi garela? Audientzia Nazionalean gertatzen ari direnak ikusi besterik ez ditugu galdera horri erantzuteko.

Hiru urtetarako gartzeleratu duten raperoa, Carrero Blancoren inguruan txisteren bat egin zuena zigortu zutenekoa, musika talde ezberdinetako abeslariaren aurkako epaiak, marrazkilaria... Iritzia delitu bilakatu nahi dute.

Baina, Audientzia Nazionala ez dago Madrilen bakarrik, jendaratean zabaladuta ere badago, eta korrante ideologiko ezberdinetan, gainera. Sare sozialetan egosten diren iritziak eta kritikak, erreazioak eta formak esanguratsuak dira nola jokatzeko dugu aztertzeke. Ez dugu iritzia iritzi ez baidatzen, akusazioz eta etiketaz, baizik. Bestalde, ez gara oso eskuzabalak gu bezala bizi ez direnekin, edo munduari bestelako betaurreko batzuekin begiratzen dietenekin. Ahaztu egiten zaigu ez dela gauza bera Ituren herrian edo Gros auzoan jaiotzea, euskal gatazkaren lubakiaren alde batean zein bestean hazi eta heztea, emakumea edo gizona izatea... Kosta egiten zaigu bestea entzutea eta bere argi zein itzalekin onartzea.

TXINTXARRI-rako idazten ditudan artikulu hauetan aukera ederra izaten dut nire zenbait ikuspegi publiko egiteko, baina onartzen dut badirela idaztera ausartzen ez naizen pentsamenduak. Batetik, ez da erraza horren karaktere gutxitan idea bat ondo azaltzea, gaizki ulertuei tarterik utzi gabe, baina batez ere, ondoren letorkenaren beldurra da isilarazi izan nauena.

Ez dakit ausartuko naizen, ez dakit uste ditudan guztiak esateko prest nagoen... Baina, gero eta behar gehiago sentitzen dut konplejurik gabe azaltzeko nire burua herriko plazan, epaiak epai eta etsaiak etsai.

Udalak 18.038 euro eman ditu hamaika negozio berri sortzeko

Udalak itzuli beharrik gabeko finantzazio-lerro bat eman du, 18.038 eurokoa. Merkataritzan, ostalaritzan edo zerbitzu pertsonaletan enpresa txikiak sortzeko laguntza ekonomikoa izan da, eta hamaika establezimendu izango dira onuradunak.

Laguntzen helburua da Lasarte-Oriako hirugarren sektorea

indartzea, merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu pertsonalekin lotutako enpresa txikiak sortzen laguntzea.

2017ko urtarrilaren 1etik Lasarte-Orian merkataritzako, ostalaritzako edo zerbitzu pertsonalen prestazioko enpresa berri bat sortu duten pertsona fisiko nahiz juridikoez izan dute dirulaguntza eskatzeko aukera, baina oinarrietan ezarritako zenabit baldintza betetzea ezinbesteko izan da.



EGUZKI TABERNA

- Entsaladak
- Razioak
- Nahaskiak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Plater konbinatuak

Enkarguzko otorduak eta baita eramateko ere.

Eta ostegunetan...
pintxo-potea!

Geltoki kalea 21, Lasarte-Oria • Tel.: 943 128 371



Kenia

NOAOA
BIDAIAK

IRTEERA MAIATZEAN
Noaok gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketeta sailaren aurrean azaroan eginiko protesta. AUTOBUSEAN MURRIZKETARIK EZ PLATAFORMA

Autobusen murrizketaren aurka, 7.000 sinadura

'Autobusetan murrizketarik ez' plataformak sinadura bilketa abiatu du, aldundiak proposatutako aurreproiektuaren aurka egiteko. Asteartean erregistratuko dituzte 7.000 sinadura; Donostiako Gipuzkoa plazara martxa bat ere antolatu dute

Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiak autobusen zerbitzuari buruz aurkeztutako aurreproiektuak hautsak harrotu ditu. Erabiltzaileak eta gidariak mobilizatu dira, eta *Autobusetan murrizketarik ez* plataforma sortu dute. Tolosaldeako eta Buruntzaldeako herrietan kanpaina egin ondoren, hurrengo asteartean, hilaren 27an, murrizketen aurkako 7.000 sinadura erregistratuko dituzte aldundian. Martxa batera ere deitu dute egun horretan. 11:00etan Donostiako Pio Baroja plazatik, Aldundiko Lurralde antolaketaren bulegoa dagoen tokitik, Gipuzkoa plazara joango dira. Agerraldia egin, eta hor erregistratuko dituzte sinadurak.

Aldundiak hasieran aurkezturiko epeak ez dira betetzen ari, eta pentsatzekoa da aurreikusitako gehiago luzatuko dela proiektua. "Berez argitaratuta egon beharko luke. Baina badirudi helegiteak eta

sinadura bilketak atzeratu egin dutela", esan dio TXINTXARRI-ri Ainhoa Elgezabalek, TSSTko langile batzordeko kideak.

Proiektuak kezka handia eragin du langileen eta erabiltzaileengan. Beldur dira, autobus lineak murriztean ezinbestean langile gutxiago beharko direla uste baitute. "Guri ez digute ezer esaten, ez enpresatik, ezta aldunditik ere. Ez dute gurekin bildu nahi. Hedabideetan egiten dituzten adierazpenengatik dugu prozesuaren berri".

Aurreproiektuaren eragina

TSSTko langile batzordeak aztertu du aldundiaren aurreproiektua. Modu honetan eragingo lioke Lasarte-Oriari:

LANGILEEK SALATU DUTE ALDUNDIAK EZ DUELA HAIKIN BILDU NAHI AUZIARI BURUZ HITZ EGITEKO

ospitaleetarako linea %46 murriztuko dute; Lasarte-Oriatik Donostiara, %25; Amarara, %25; Andoainera, %25; Hernanira, %46; eta Tolosara, %50. Urtean 800.000 kilometro gutxiago egingo dituztela ondorioztatu dute. Gipuzkoako Foru Aldundiak, ordea, "lineak berregituratuko" direla esan du, ordu gorenetan autobus gehiago jartzeko.

"Diputazioaren jarduteko modu honen atzean eredu neoliberal basatia dago, zerbitzu publikoak suntsitzeko eta ekonomia pribatuari ateak irekitzeko", salatu du murrizketen aurkako plataformak.

Horren aurrean, plataformak aldarrikatu du sistema publikoaren inguruko erabakietan parte hartzeko eskubidea. "Hori da demokraziaren oinarria".

Herritarrek oraindik ere badute sinadura bilketan parte hartzeko aukera. Kontsumobideko bulegoan eman diezaiokete atxikipena plataformari.

Familia barruko harremanak lantzeko tailerrak antolatu ditu udalak

Lasarte-Oriako Udalak 6 urtetik 11 urtera arteko gaztetxoan eta 12 urtetik 18 urterako nerabeen gurasoei zuzendutako bi tailer antolatu ditu. Helburua gurasoei seguru sentitzen laguntzea dela azaldu dute antolatzaileek.

Tailer bakoitza hiru monografikotan banatua dago; independenteak dira, eta hiruretara, bitara edo bakarrera joan daiteke. Landuko diren gaiak honakoak dira: *Nola*

prebenitu eta konpondu gure seme-alabekiko gatazkak; Nola kudeatu emozioak familian eta Nola sustatu gizarte-harreman osasungarriak gure seme-alabengan.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, saioak martxoan, apirilean eta maiatzean eskainiko dira, Villa Mirentxuko ekitaldi-aretoan, 17:30etik 19:30era bitartean.

Tailerrak doakoak dira, eta bi hizkuntzetan egingo dira. Izena ematea astelehenean ostiralera, 9:00etatik 13:00etara, egin behar da Villa Mirentxun. Plazak amaitu artean egongo da zabalik inskripzioa.



LASARTE-ORIAKO UDALA

Bulego ibiltaria, Basaundin

Basaundi bailarako bizilagunak bisitatu ditu Lasarte-Oriako Udaleko Bulego Ibiltariak igande goizean. Zenbait herritar gerturatu dira, zalantzak argitzera eta kexak plazaratzera. Alkateak eta zinegotziek egin diete harrera. Gehien aipatutako gaia auzoaren etorkizuneko berrurbanizazioa izan da.

Hotelgintzan enplegua sustatzeko diru laguntza berriak eskatzeko aukera

Beterri-Buruntza eskualdeko Enplegua Sustatzeko Hotelgintza programarako kontratazioetarako diru laguntzak argitaratu dira.

Enpresak, profesionalak edo erakundeak dira onuradunak, betiere, solairuetako zerbitzari edo gela zain moduan aritzeko langabezia dauden pertsonak kontratatzen badituzte, lanaldi osoan, gizarte segurantzako erregimen orokorrean eta gutxienez 6 hilabeteko iraupenarekin. Ezin dira administrazio edo erakunde

publikoen menpeko izan, ezta horiekin lotura sozietariorik izan ere. Gizarte segurantzaren eta zergen betebeharrekin egunean egon behar dira, eta ezin dute Beterri-Buruntza eskualdeko udalekin zorrik izan.

Kontratatu izateko baldintza hauek bete beharko dira: Beterri-Buruntza udaletako langabetuak izatea eta Cebanc-ek emango duen prestakuntza atala egoki gaituztea, hain zuzen ere, Ostatuatan solairuetako oinarritzko lanak egitea, 300 orduko profesionaltasun ziurtagiria.

Laguntzak 2018ko martxoaren 21etik apirilaren 1era bitarte egiten diren kontratazioetan eskatu daitezke. Ez dituzte 8.000 euroak gaituzteko.

Erraustegiaren aurka manifestatzeko deia

Larunbateko manifestazioara joateko deialdia egin du Aire Garbiak, 'Erraustegia gelditu eta birziklapena sustatu' lelopean. Lasarte-Oriako gaikako jasoketa sistema eraginkorra ez dela salatu du, eta datuak eman ditu: %45 birziklatu zen iaz

Txintxarri

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak manifestazioa deitu du larunbat honetan Donostian, eta Lasarte-Oriako Aire Garbia elkarteak herritarrek animatu ditu parte hartzera. *Erraustegia gelditu eta birziklapena sustatu* lelopean egingo dute martxa. Izan ere, Aire Garbiak azaldu duenez, txanpon bereko bi aldeak dira. "Zenbat eta gehiago birziklatu, gero eta ageriagoan geratuko da erraustegia ez dela beharrezkoa, ingurumenarentzat eta herritarren poltsikoentzako kaltegarria izateaz gainera", esan du Martin Ansok, elkarteke bozeramaileak.

Lasarte-Oria da erraustegiaren eraginak sufrituko dituen herrietako bat, azpiegitura herri ondoan bertan eraikitzen hasi dira eta, Zubietan. Halere, San Marko Mankomunitatearen datuen arabera, gutxien birziklatzen duen herrietako bat da. "Donostiarekin batera, gutxien birziklatu zuen herria da. Eta kontuan izan behar da San Marko dela Gipuzkoan gutxien birziklatzen duen mankomunitatea". 2017. urtean %44,8 birziklatu zen, aurreko urtean baino hamar puntu gehiago. %60ko tasa edukitzea



Manifestazioarekin afixarekin argazkia atera zuten asteazkenean. TXINTXARRI

da Gipuzkoako herriek jarritako helburua. Askok lortu dute muga hori gaintitzea.

Aire Garbiaren ustez, Lasarte-Oriako birziklatze sistemak "eraginkortasun eskasa" du. Kontzientziatzeko kanpainak egin arren, elkarte ekologistaren esanetan gauza gutxi aldatuko dira.

Horregatik, sistema aldatzeko eskaera egin du Aire Garbiak. "Epe laburrera begira aldatu behar da sistema. Udalerri askok dagoeneko egin dute. Gainera, hori lortzeko eredu bakarra ez dago. Hainbat daude, herri bakoitzaren berezitasunera egokitu daitezke, gainera".



Berrogei urte bete ditu Lasarte-Oriako Extremadura etxeak. TXINTXARRI

Berrogei urtez Extremadurako ohiturak mantentzen

Extremadurako ohiturak Lasarte-Oriara ekarri, txerri festa egin dute asteburuan, Ama Guadalupekoa elkartean

Iñigo Gonzalez

Txerriaren hilketa da Extremadura Etxearen ohitura ezagunenetako bat. Joan den larunbatean aritu ziren, txerrikiak erabiliz, probintzia horretako hainbat jaki ezagun

prestatzen: hestebeteak, txorizoak, migak...

Asteburu oso berezia da beraiantzat: 1978ko otsailaren 17an hasi ziren euren lurraldeko ohiturak ekaritzen Lasarte-Oriara. 40 urte bete dituzte aurten.



TXINTXARRI

Emakume izatea Saharan

Euskal Herriko Lagunak Sahararekin Bat elkarteak eta Lasarte-Oriako Talde Aktibistak bi puntako hizlari ekarri dituzte herrira. Mendebaldeko Saharan eta Azerbaijanen emakume izatea azaldu zuten asteartean Garazi Hach Embarek eta Tarana Karimek. Haien jaioterrian bizitako esperientziak ekarri dituzte gogora Manuel Lekuonan bildutako ikus-entzuleentzat.

**TXINTXARRI
PUBLIZITATEA:**

publizitatea@ttakun.eus
943 371 448 (106)
646 82 44 66



Geltoki kalea 4,
Lasarte-Oria



**Martxoaren 3an...
TXURI URDINERA GOAZ!!!!**

Izen-emate epea: martxoaren lera bitarte, hau barne. **PLAZA MUGATUAK.** Eraman beharrekoak: askaria, galtzerdi potoloak eta **KASKOA** (txirrinda).
Irteera: 16:00etan. Itzulera: 19:30ean. Lekua: Zumaburuko autobus geltokia.
Prezioa: Ttakuneko bazkideak 14€, gainontzekoak 17€.

Izen-ematea aisia@ttakun.eus-en, 695 785 392-an edota Ttakunen bulegoan.



@TtakunKE

Errugbi zelaietan enbaxadore

Kirol herria da gurea. Lasarteoriatar ugarik jarri, jartzen eta jarriko dute herria aditu eta zaleen ahotan. Errugbia da adibide garbi bat: hainbat jokalaria ari dira estatuko maila altuenetan lehiatzen. Indartsu dator harrobia ere, Beltzak eskolaren lanari esker

Iñigo Gonzalez Sarobe

Jokalarien arteko giro ona izan da elkarrizketaren ezaugarrietako bat: "Datorren urtean, Zarautz eta Hernaniren arteko derbia, Ohorezko Mailan!", esan dute, irribarretsu. Gure Etxea tabernan elkartu ditugu Jon Ander Puertas, Xabier eta Ander Rekondo anaiak, Xabier Prieto, Unai Urruzola, Julen Aristorena, David Vega, Adrian Apaolaza, Gorka Aristondo eta Ritxar Yurramendi. Lasarte-Oriakoak dira guztiak, eta maila gorenetan ari dira jokatzeko. Estatuko liga onenean ari da Puertas, Hernani CRE taldean; beste batzuk, Ohorezko B mailako Babyauto Zarautzen daude; eta, gainontzekoak, Babyauto ZRT-Beltzak taldean, senior mailako Euskal Ligan.

Askorako eman du solasaldiak. Besteak beste, herrian errugbiaren egoera nolakoa den aztertu dute. Ander Rekondok egin du pronostikoa: "Hamar urte barru Lasarte-Oriak talde propio bat eduki dezakeela uste dut". Lan asko dago oraindik egiteke, baina denek diote kirol diziplina hau gero eta gehiago ari dela zabaltzen gurean.

Errugbia eta *Lasarte-Oria* hitzak dituen esaldi bati ezin zaio amaierako puntua jarri, aurretik *Beltzak* sartu gabe. Historia apurtxo bat, hau dena kontestuan jartzeko: 1984an sortu zen gure herriko aurreneko taldea. Handik lau urtera hartu zuen gaur egunera arte mantendu duten izena: Beltzak. Logikoa da azalpena: beltze jokatzeko zituena partidak, eta ekipazioaren kolorea hartu zuten izentzat. 1998ra arte 200 partida baino gehiago jokatu zituzten, Ipar Euskal Herrian gehienak.

Taldearen 25. urteurrenean, gazte garaian errugbian

aritutako beterano batzuek pentsatu zuten herrian errugbi eskola bat sortzea. Beharrezko tramiteak egin eta gero, 2010ean jarri zuten martxan. Gaur egun jarraitzen dute lanean, herriko hainbat neska-mutilekin: ostiral arratsaldeetan entrenatzen dute, Michelingo zelaietan.

Aurreneko urratsak

Elkarrizketako protagonistetako asko pasa dira Beltzaketik, aurreneko taldera iritsi baino lehen. Adrian Apaolaza gaztea da adibide garbi bat: harrobiko kategoria guztietan jokatu du, eta Ohorezko B mailan ari da orain. Balentria hori egin duen aurreneko herritarra izan da.

Bitxikeri bat kontatu du Ritxar Yurramendik. Bera Atletico San Sebastian taldean hasi zen jokatzeko, bospasei urte zituela. Beltzak eskolan ere egin izan ditu entrenatzaile lanak. 2008an hasi ziren errugbian Xabier Prieto, Julen Aristorena, Gorka Aristondo eta Adrian Apaolaza. Ritxarrek entrenatzen zuen taldea. Elkarrekin jokatu izan dute askotan, geroago.

Jon Ander Puertasek ere Atletico San Sebastian taldean egin zituen aurreneko urratsak, artean haurra zela. Ordizian ere ibili zen. Gaur egun, esan bezala, Hernani CREn ari da. Gure Etxean elkartu direnetatik, oraindik Beltzak talderen batean jokatu ez duen bakarra da.

David Vegak futboleko jokatzeko zuten gaztetxoaren zenean. Ordurako

MAILAZ IGO NAHI DU BABYAUTO ZARAUTZ TALDEAK; HERNANIK, BERRIZ, KATEGORIA MANTENDU

errugbian aritzen zen Paola arreba gaztea, eta Daviden lagun batzuk ere bai: "Futbolaz aspertu, eta kirolez aldatzea erabaki nuen. Errugbia probatu nuen, asko gustatu zitzaidan, eta gaur arte".

Lagun eta senideek garrantzia handia dute, baita Rekondo anaien eta Unai Urruzolaren ibilbidean ere. Xabier Rekondo, bietan gazteena, izan zen errugbian hasten lehena. Anaia Ander animatu zen gero. Gustatu, eta Unai Urruzola lagunari proposatu zion. Berak ere egin zuen urratsa. Gaur egun, elkarrekin jokatzeko dute hirurek.

Xede indibidual eta kolektiboak

Hernani CREren helburu nagusia jaitsiera playoffak jokatzetik salbu geratzea da, Jon Ander Puertasek nabarmendu duenez. Hamabi taldek osatzen dute liga, eta azkenurreko postuan dago taldea, 24 punturekin. Uneotan ez litzateke libratuko, baina aurretik duen La Vilak ere 24 puntu ditu. Denboraldi amaierara arte sufritu beharko dute.

Babyauto Zarautz, aldiz, gora begira ari da. Azken urteetan bezala, kategoriaz igotzeko lehiari sartu nahi dute. "Posible izanez gero, igo nahiko genuke, noski, baina printzipioz igoera faserat sailkatzea da gure helburu nagusia", aipatu du Unai Urruzolak. Ez dira batere gaizki ari, momentuz: hemezortzi partida jokatu, 3. postuan daude, 54 punturekin.

Helburu kolektiboak buruz soilik ez, indibidualei buruz ere hitz egin dute jokalariek. Adrian Apaolaza eta Gorka Aristondo gazteek "esperientzia hartzen" jarraitu nahi dute, eta baita lehen taldean postu finko bat lortu ere. Xabier Prietok jokalaria gisa hobetzen jarraitu nahi du,



Ezker-eskuin: Jon Ander Puertas, Xabier Rekondo, Adrian Apaolaza, Julen Aristorena, Xabier Prieto, U

"pixkanaka-pixkanaka". Antzeko mintzo da David Vega: "Gaztea naiz oraindik, beti jarraitu dezakezu hobetzen, ikasten. Ondo pasatzen jarraitu nahi dut ere bai; goraka egin, beti". Ander Rekondok dio "eguneroko errutinatik deskonektatzen" laguntzen diola errugbian jokatzeko: "Taldekideekin ongi pasa nahi dut, errugbiaren gozatu, eta, jakina, jokalaria gero eta hobe izan".

Zelai barrukoak...zelai barruan

Errugbiak ongi merezia dauka ospea: kirol oso garbia da, eta balio asko transmititzen ditu. Gure Etxean elkartutako jokalariek ere hala uste dute, noski, baina onartzen dute zelai

ADRIAN APAOLAZAK HARROBIKO TALDE GUZTIETAN JOKATU DU, LEHEN TALDERA IRITSI AURRETIK

barruan badaudela lehiak, batzuetan apropos zapaltzen direla elkarri, eta antzekoak. "Kontaktua askoko kirola denez, agian ez dira akzio oso nabarmenak, baina gertatzen dira horrelako azpizkoak. Hori bai, dena zelai barruan geratzen da, dutxa hartu eta hirugarren denboran elkartzeko gara guztiok, arazorik gabe", dio Ander Rekondok. "Zelai barruko pikeak ez dituzu eramaten kanpora, eta, adibidez, epaileari ez zaio inor joango protestaka etengabe", azaldu du Ritxar Yurramendik. Apunte garrantzitsu bat egiten du Rekondok: "Txartel horiekin kontuz ibili behar dugu, kanpora joan behar dugulako hamar minutuz; horrek asko kaltetu dezake taldea. Hortaz, burua hotz mantentzen saiatu behar izaten duzu, jokatu bitartean".

Errugbiari emandakoa, bueltan Orduak, orduak eta orduak pasatzen dituzte Hernani eta Babyauto Zarautzeko jokalariek



Unai Urruzola, Ritxar Yurramendi, Gorka Aristondo, David Vega eta Ander Rekondo. Gure Etxea tabernan elkartu dira TXINTXARRIREKIN. TXINTXARRI

entrenatzen: uda partean ekiten diote aurrendenboraldiari, eta liga irailean hasi. Apirilera arte irauten du, gutxienez, eta luzatu daiteke, igoera zein jaitsiera faseak jokatu behar izanez gero. Gustura egiten dute, maite dutelako kirol honetan aritzea, baina ezin uka errugbiari asko ematen diotela. Hori bai, bueltan ere jasotzen dituzte gauzak.

Babyauto Zarautzen jokatzen duten jokalariek denek nabarmendu dute gauza bera: talde giro ona. "Lagun kuadrilla bat bezala gara", dio Urruzolak. "Lagunartera zoaz entrenatzera, eta errazagoa egiten zaizu, gusturago zoaz". Talde kimika indartsu hori nabaritzen dute zelaira lehiazera irteten direnean: "Badakizu zure alboan dituzun taldekideek nola jokatzen duten, eta elkar ulertzea errazagoa da". Partida egunetan, ordutegiaren arabera, elkarrekin gosaldia edota bazkaltzen dute, eta, norgehiagoka bukatu eta gero, askotan elkarrekin ere

afaltzen dute. "Etxekoak baino gehiago ikusten ditut taldekideak ia!", bota du Urruzolak, barrez. Partidatan serio konpetitzen dute, baina zelaitik at umore ona ez zaie falta.

Jon Ander Puertasek azaldu du zer nolako errutina daukaten Hernanin, partiden aurretik. Lan saio suabe bat egiten dute, giharrak aktibatzeke eta kontzeptu teknikoak azken aldiz errepasatzeko. Gero, bazkaldu, eta jokatzen hasteko pare bat orduren faltan, "%100ean" zentratzen dira norgehiagokan. Epailaren jarraibideak entzuten dituzte, eta zelaira irteten dira beroketa ariketak egitera.

Partida eta gero, errekupeazio lana. "Jokalariek bakoitzak ahal

UNAI URRUZOLA (BABYAUTO ZARAUTZ): "LAGUN KUADRILLA BAT BEZALAKOA DA GURE TALDEA"

duena egiten du", dio David Vegak. "Jokalariek guztiok ez dugu esfortzu bera egiten partidatan, postu desberdinetan aritzen garela, gehiago edo gutxiago plakatzen dugulako, hasieratik jokatu edo ordezkoen aukitik ateratzen gara... Errekuperazio lana ez da berbera", zehaztu du Ritxar Yurramendik. "Gainera, ez gara profesionalak; asteburuan jokatu, eta, astelehenean, lanera joan behar dugu, edo ikasketekin jarraitzera. Punta-puntako jokalariek errugbia dute lanbide".

Zaleen indarra

Bakoitzak egin dezakeen lan guztiaz aparte, jokalariek badute energia dosi estra bat, etxeko partidatan batez ere: zaleen indarra. Babyautok Zarauzko Asti zelaian jokatzen du; Hernanik, berriz, Landaren. Etxean jokatzen dituzten norgehiagoketan "giro oso ona" sortzen da, Yurramendik kontatu duenez. Urruzolak ere hala dio:

"Afizio handia dago, jende asko joaten da, eta asko laguntzen du horrek errugbian. Ni, pertsonalki, oso gustura aritzen naiz".

Zaleen inguruan dioten guztia ez da positiboa, hala ere. Jokoan kontzentratuta egoten diren arren, zelai barrutik nabaritzen dute gero eta gehiago protestatzen dutela zaleek partidatan. Lehen errespetu gehiagoz jokatzen zutelara uste du Jon Ander Puertasek: "Aldatzen ari da zale batzuen jarrera, okerrera. Gehiago errespetatzen ziren epaileak lehen, ez zituzten horrenbeste protesta entzun behar izaten".

Errugbia Lasarte-Orian

"Hazten ari da zaletasuna herrian: lehen baino jende gehiago ikusten da Michelin jokatzen diren partidatan. Egia da futbola bezalako kirolek erakargarritasun handia dutela, baina gero eta gaztetxo gehiagok errugbian jokatzen jarraitzearen alde egiten dute, kirol bat edo beste hartu behar dutenean". Ander Rekondoren analisia da hori. Elkarrizketako gai nagusietako bat izan da: errugbiaren egoera Lasarte-Orian. "Neska-mutil lasarteoriatar gero eta gehiago ikusten ditut nik errugbian jokatzen", esan du Julen Aristorenak. "Taberna bat eta guzti daukagu [Gure Etxea]!", dio Rekondok.

Halere, oraindik lan asko dago egiteko. Ondorio hori atera daiteke jokalariek hitzak entzun eta gero. Kirol "estereotipatua" da oraindik. Yurramendik hala uste du behintzat: "Guraso askok uste dute errugbia dela jende mordo bat elkarri kolpeak ematen, plakajeak egiten, etengabe, eta ez da horrela". Julen Aristorenaren aburuz, herriko jendeak badaki errugbian jokatzen dela Lasarte-Orian: "Seguru asko ez daki nola jokatzen den, baina badaki errugbian egiten dela hemen".

Horri lotuta, errugbia gehiago ikusarazi behar dela uste du Jon Ander Puertasek. "Jendea irakatsi behar zaio, ulertu dezatela nola jokatzen den, ikusi

JON ANDER PUERTAS (HERNANI CRE): "ERRUGBIA GEHIAGO IKUSARAZI BEHAR DA, KALERA ERAMAN"

dezatela zer nolako balioak transmititzen dituen errugbiak". Ildo beretik jo du Ritxar Yurramendik: "Egia da kultura falta dela, baina ez da gure errua jendeak kirola ezagutzeko interes nahikorik ez jartzea, duela bi urtetik Babyauto ZRT-Beltzak taldeak Michelin jokatzen dituelako partidak, eta baita harrobiko taldeek ere askotan. Aukera, egon, badago. Halere, Michelin gero eta beteago dago".

Michelin gero eta beteago egotearen erantzule handiena da Beltzak errugbi eskola. "Txalotzekoa da azken urteotan egin duten lana, oso ona", nabarmendu du Puertasek. "Asko aldatu da egoera: beteranok lan izugarria egin dute errugbia herrian sartzeko, eta hor daude emaitzak: eskolan gero eta ume gehiagok ikasten dute jokatzen, herritarrak ikusten duzu kaletik Beltzaken kamiseta zein txandalekin, errugbi baloiekin... Hori lehen ez zen gertatzen". Ritxar Yurramendiren hitzak dira.

Errugbiak, etorkizunean, are dimentsio gehiago har dezake herrian. Hala uste du behintzat Ander Rekondok: "Kirol honek ez du goia jo oraindik, inondik ere. Etorkizunean jokalariek oso onak edukiko ditugu herrian, txiki-txikitatik hasi direlako errugbia ikasten. Gutako asko, esate baterako, geroago hasi gara. Hamar urte barru, herriak eduki dezake talde propio bat, nire iritziz".

Elkarrizketa bukatu eta mahaitik altxa aurretik, behin eta berriro errepikatu dute jokalariek zenbateraino zaintzen den segurtasuna errugbian, hasi harrobiko taldeetatik eta elitekoetaraino. "Oso zorrotzak dira neurriak, ikaragarri zaintzen da hori gaur egun, asko aldatu da hori ere. Seguru medikuak dituzte jokalariek, kaskoak erabiltzen dira, buruko kolpe gogorak saihesteko lan handia ari dira egiten, adibidez", jakinarazi du Puertasek.

Horri lotuta, aipatu dute kirol diziplina honek balio oso garrantzitsuak erakusten dituela: errespetua, talde lana, taldean batuz helburu baten bila joatea guztiak batera edota irabazi zein galtzen ikastea, esate baterako.

Errugbiaren bultzada gero eta jendetsuagoa da Lasarte-Orian. Etorkizuna, herrian behintzat, ez dirudi beltza izango denik.

Nor da nor?

GORKA ARISTONDO NOVOA

Jaiotze urtea: 1999.

Gaur egungo taldea eta liga: Babyauto ZRT-Beltzak/Euskal Liga.

Postua: Hirugarren lerrokoa (6. edo 7. zenbakia).

Errugbian jokatzeko daramatzan urteak: 8-9 urte.



JULEN ARISTORENA LAZARRAGA

Jaiotze urtea: 1996.

Gaur egungo taldea eta liga: Babyauto ZRT-Beltzak/Euskal Liga.

Postua: Bigarren edo hirugarren lerrokoa (4,5,6 edo 7. zbk.)

Errugbian jokatzeko daramatzan urteak: 8-9 urte.



JOXAN ALKORTA

ADRIAN APAOLAZA URDANPILLETA

Jaiotze urtea: 1999.

Gaur egungo taldea eta liga: Babyauto ZRT/Ohorezko B maila.

Postua: Hegaleko jokalaria (11. edo 14. zenbakia).

Errugbian jokatzeko daramatzan urteak: 9 urte.



XABIER PRIETO ARZALLUS

Jaiotze urtea: 1996.

Gaur egungo taldea eta liga: Babyauto ZRT/Ohorezko B maila.

Postua: Orpokatzailea edo hirugarren lerrokoa (2, 6 edo 7. zbk.)

Errugbian jokatzeko daramatzan urteak: 8-9 urte.



JON ANDER PUERTAS RAMIREZ

Jaiotze urtea: 1996.

Gaur egungo taldea eta liga: Hernani CRE/Ohorezko Maila.

Postua: Erdikoa (12. zenbakia)

Errugbian jokatzeko daramatzan urteak: 15 urte baino gehiago.

Behin baino gehiagotan deitu du Espainiako Selekzioak, harrobiko kategorietan aritzeko. 2015eko azaroan 19 urtez azpiko Europako Txapelketa irabazi zuen, Lisboan (Portugal).



ANDER REKONDO SALSAMENDI

Jaiotze urtea: 1995.

Gaur egungo taldea eta liga: Babyauto ZRT/Ohorezko B maila.

Postua: Bigarren lerrokoa (6. zenbakia).

Errugbian jokatzeko daramatzan urteak: 6 urte.



XABIER REKONDO SALSAMENDI

Jaiotze urtea: 1996.

Gaur egungo taldea eta liga: Babyauto ZRT/Ohorezko B maila.

Postua: Harroina edo orpokatzailea (1. edo 2. zenbakiak).

Errugbian jokatzeko daramatzan urteak: 8-9 urte.

Euskal Selekzioaren jokatu izan du harrobiko kategorietan.



UNAI URRUZOLA UGALDE

Jaiotze urtea: 1995.

Gaur egungo taldea eta liga: Babyauto ZRT/Ohorezko B maila.

Postua: Harroina (1. edo 3. zenbakiak).

Errugbian jokatzeko daramatzan urteak: 6 urte.



DAVID VEGA SANTOS

Jaiotze urtea: 1996.

Gaur egungo taldea eta liga: Babyauto ZRT/Ohorezko B maila.

Postua: Hegalekoa edo atzelaria (11, 14 edo 15. zenbakia).

Errugbian jokatzeko daramatzan urteak: 7 urte.



RITXAR YURRAMENDI MITXELENA

Jaiotze urtea: 1992.

Gaur egungo taldea eta liga: Babyauto ZRT/Ohorezko B maila.

Postua: Meleko erdilaria (9. zenbakia).

Errugbian jokatzeko daramatzan urteak: 15 urte baino gehiago.





GREMIOEN GIDA 2018

Arreta profesionalena, zugandik gertu



Igeltseritza



Barne-Diseinua



Iturgintza

ANTONIO ARREGUI, S.L.  **eraikuntza materialak**
GAMMA

- Eraikuntza materialak orokorrean
- Zeramika
- Sanitarioak
- Komuneko konplementuak

www.gamma.es

| | |
|---|---|
| BILTEGI OROKORRA Oria Etorbidea, 6 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 36 64 73 aarreguisl@ya.com | ERAKUSKETA Goikale, 2 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 36 59 47 Faxa: 943 36 59 47 |
|---|---|

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 059 392 - 943 566 640
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE-ERREFORMAK

Pintore kalea 5, Lasarte-Oria
Tel: 943 36 14 71
sugatesukaldeak@gmail.com
www.sugate.net

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKO MARKA GUZTIAK

ILLARRETA
ITURGINTZA

- ERAKUSKETA ETA SALMENTA
- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSERITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA

Geltoki kalea 21, Lasarte-Oria
943 36 31 47 / 943 37 36 17 52
Tailerra: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com



Elektrizitatea




Kristaldegia eta Leihoak

ELECTRICIDAD ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21
600 857 586 - www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

DEL ORIA
KRISTALDEGIA



Uistin kalea, 11 (Zubieta Plaza)
Tel./Fax: 943 36 23 52 - M: 607 234 522

20160 LASARTE-ORIA

- ISPILUAK
- BEIRA APAINGARRIAK ETA ALAKATUAK
- MERKATARITZA-INSTALAZIOAK
- DUTXA-ITXIDURAK
- KRISTALGINTZA OROKORRA

ISU
26. urteurrena



Mota guztietako leiho, pertsiana, manpara, toldo eta dekorazioko profesionalak zure zerbitzura

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA, ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOA

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria
Tel. 943 36 64 95 • Faxa: 943 36 52 22
ventanas_isu@hotmail.com
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA



- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

Hurrengo GREMIOEN GIDA martxoaren 23an. Bertan parte hartzeko:

943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 - publizitatea@ttakun.eus

Eslalom parte hartze eta promozio jardunaldia

Eslaloma egiten duten kirolariei eta urritasuna duten gazteei zuzendutako topaketa antolatu du Ostadar SKTko Kirol Egokituko atalak. Ikusmira duten herritarrek ere hurbildu daitezke igandean Maialen Chourraut kiroldegira

Txintxarri

Ostadar SKTko Kirol Egokitu eta Inklusio atalak Eslalom partehartze eta promozio jardunaldia antolatu du otsailak 25rako, igande honetarako. 9:30ean hasiko da. "Eslaloma Lasarte-Orian kirol berria da; ez dut uste herrian inoiz egin denik," adierazi du Iurgi Olasagasti ataleko arduradunak.

Eslaloma urritasuna duten pertsonentzako sortutako kirol espezifikoa da. Iurgi Olasagasti ataleko arduradunak azaldu ditu kirol diziplinaren nondik norakoak: "Badaude kirolak federazio konbentzionaletan daudenak. Beste batzuk horietatik kanpo daude, eta beste kiroleratik egokitu dira urritasunen bat dutenek egin ahal izateko. Baina badaude hiru kirol zehatz haietazko sortu direnak. Horiek esaloma, boccia eta goalballa dira".

Eslaloma zirkuitu bat da, parte hartzaileek gurpil-aulkia erabili



Eslaloma urritasuna duten pertsonen zuzendutako kirola da. TXINTXARRI

behar dute, eta ahalik eta bizkorren egin behar dute ibilbidea.

"Parte hartzaileen gurpil-aulkia erabilera eta hura

gidatzeko trebetasuna neurtzen dira. Urrietasun fisiko maila batzuk eta garun paralisia duten pertsonen lehiatu dezakete honetan", esan du

Ostadar SKTko ataleko arduradunak.

Topaketa slalomean aritzen diren kirolariei zuzendua dago. Izan ere, Olasagastiren hitzetan, ez daude horrelako hainbesteko proba. "Ez bakarrik Gipuzkoan. Espainian eta Iparraldean ez dago kirol honetan aritzen edo entrenatzen duten pertsonentzat probarik".

Eslalom proba hau, gainera, Espainiako txapelketarako marka egiteko baliagarri izan daiteke. "Bertan egiten diren denborak balio dezakete Espainiko txapelketan parte hartzeko. Horretarako arauak bete behar dira. Horrela, asmo horrekin kirolaririk badator, eslalom zirkuitua arauetara moldatuko da".

"Horrela ez bada, berdin-berdin egin daiteke jardunaldia, eta berdin parte hartu dezake jendeak. Hori bai, gutxieneko urritasun bat izan behar da kirol honetan lehiatzeko," nabarmendu du Olasagastik.

Gauzak honela, Kirol Egokitu eta Inklusio ataleko arduradunak gonbita egiten die eslalom kirolariei, baita urritasunen bat duten gazteei ere. "Kirolean parte hartu nahi duenak etortzea du, eta kuriositatea duten pertsonen ere ikustera etor daitezke".

Bartzelonara bidaiari

Bestalde, Ostadar Kirol Egokitu eta Inklusio ataleko gazteak lanean ari dira. Astelehen eta

asteazkenetan, hamar bat gaztetxo biltzen dira kiroldegian. "Gehienek urritasuna dute. Taldean edonork parte hartu dezake".

"Eskola kiroleko filosofia jarraitzen dugu. Gazteak kirol bakarrera bideratu ordez, kirol asko probatzen dituzte. Izan ere, ez dakigu zein kirol gustuko duten. Helburua ez da kirol batean ona izatea, kirol ohitura bat sortzea baizik," adierazi du Olasagastik.

Filosofia horri lotuta, topaketetara eta sortzen diren txapelketetara joaten dira gazteak. Topaketa asko egin dituzte. "Saskibaloi topaketa egin dugu, igeriketa...denetarik ari dira probatzen."

Baina entrenamendu edo topaketez gain, ekintza bereziak ere egiten dituzte. Esate baterako, hil honen hasieran, otsailaren 3an eta 4an, Bartzelona ezagutu zuten.

"Oso esperientzia ona izan da. Gazteek askotan ez dute aukera haien urritasunagatik asteburu pasa edo hain normalizatu izango litzatekeen ikasketa bidaira joateko. Eta nahiz eta bidaiari egokitu egon, beldurra sentitu dezake eta ezezkoa ematen dute," azaldu du.

Bidaiaren helburuak ere zehaztu ditu Olasagastik: "Beraiek beste batzuekin entrenatzeko eta lehiatzeko. Elkarrekin bizitzeko. Autonomia ere landu genuen".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

| |
|--|
| FUTBOLA |
| ERREGIONALEN IGOERA FASEA |
| Ostadar SKT - Hondarribia Larunbata. 17:00. Michelinen. |
| ERREGIONAL PREFERENTE A |
| Orioko - Ostadar SKT Larunbata. 16:30. Mendibeltz, Orion |
| JUBENILEN OHOREZKO MAILA |
| Eibar - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Unbe, Eibarren. |
| JUBENIL 1. MAILA, IGOERA FASEA |
| Santo Tomas Lizeoa - Ostadar SKT Larunbata. 19:15. Berio, Donostian. |
| KADETEEN OHOREZKO MAILA |
| Ostadar SKT - Oiartzun Larunbata. 15:00. Michelinen. |
| KADETE 1. MAILA, IGOERA FASEA |
| Kostkas - Ostadar SKT A Igandea. 12:15. Matigoxotegi, Donostian. |
| KADETE 1. MAILA, KOPA |
| Danena C - Ostadar SKT B Larunbata. 12:00. Elbarrena, Zizurkilen. |

| |
|---|
| ARETO-FUTBOLA |
| HERRIKO TXAPELKETA |
| Trumoi - Izen gabe Larunbata. 09:30. Kirolgunean. |
| Txoko Autocares Luis Car - Insausti Kattagorri Larunbata. 10:30. Kirolgunean. |
| Avenida - Irigoien Larunbata. 11:30. Kirolgunean. |
| Buenetxea - Patricio Larunbata. 12:30. Kirolgunean. |
| 3. NAZIONAL MAILA |
| Eguzki Antonio Aroztegia - Aurrera Vitoria Larunbata. 18:00. Kiroldegian. |
| GIPIZKOAKO 1GO MAILA |
| ISU Leihoak - Egarrri taberna Ostirala. 20:50. Kiroldegian. |
| SENIORRA |
| Idiazabal BaiReformas - Trumoi Taberna Eguzki Larunbata. 17:00. Zelaa Kiroldegia, Billabonan. |
| GIPIZKOAKO 2. MAILA |
| Gaintxu - Cecilia Frutadenda Eguzki Larunbata. 16:00. Bekoerrot kiroldegia, Lezon. |

| |
|--|
| GIPIZKOAKO JUBENILEN MAILA |
| Lasarte Eguzki - Lauburu Ibarra Igandea. 11:15. Kiroldegian. |
| GIPIZKOAKO KADETEEN MAILA |
| Arizmendi - Balerdi Eguzki Igandea. 10:00. Ibarra kiroldegia, Aretxabaletan. |
| SASKIBALOA |
| SENIORRA |
| Astigarrako Mundarro - Ostadar SKT Ostirala. 20:00. Astigarragako kiroldegian. |
| SENIORRA 3. MAILA |
| Ostadar SKT - Grupo Eme Oiarso Ostirala. 20:30. Kiroldegian. |
| JUNIOR ERRENDIMENDUA |
| Ostadar SKT - Arri BKL Indar Larunbata. 16:00. Kiroldegian. |
| JUNIOR PARTIZIPAZIOA, IGOERA |
| Ostadar SKT - Aelvasa Oiarso S.K.T Igandea. 11:45. Galtzaraborda kiroldegian. |
| KADETE ERRENDIMENDUA |
| ATC Sn Sn Andatza Tecnun - Ostadar SKT Larunbata. 10:45. Aiete kiroldegian. |

| |
|---|
| KADETE PARTIZIPAZIOA |
| Ibaeta Bera Bera Igeldo - Ostadar SKT Larunbata. 10:30. Manteo kiroldegian. |
| INFANTIL HAUNDI PARTIZIPAZIOA |
| Bera Bera Santa Clara 2 - Ostadar SKT Larunbata. 09:30. Manteo kiroldegian. |
| INFANTIL TXIKI PARTIZIPAZIOA |
| Antigua Luberri KE txiki - Ostadar SKT Larunbata. 10:30. Antigua Luberri BHI. |
| PILOTA |
| UDABERRI, BINAKA 1. MAILA |
| Orio - Intza 2 Igandea. 11:00. Orioko pilotalekuan. |
| TRINKETA, BINAKA 2. MAILA |
| Mundarro - Intza Larunbata. 11:00. Ametsa trinketa, Iruran. |
| IGERIKETA |
| ESPAINIAKO TXAPELKETA |
| Leire Martin Distantzia luzeko Espainiako Txapelketan arituko da. Larunbata. Mataron. |
| Gipuzkoako Neguko Txapelketa. Igandea. Irunen. |
| LASTERKETAK |

| |
|---|
| AFIZIONATUAK |
| Lasarte-Oriako hainbat korrikalari arituko dira Hernaniko Sagar Lasterra lasterketan. Larunbata. 11:00. Hernanin. |
| IPAR MARTXA |
| MARTXA |
| 12 kilometrotako ibilaldia egingo dute Lasarte-Oriatik Txokoalderaino. Larunbata. 08:30. Lasarte-Orian. |
| ERRUGBIA |
| OHOREZKO B MAILA |
| Bathco RC - Babyauto Zarautz RT Larunbata. 16:00. Santanderren. |
| GIMNASIA |
| BENJAMINAK |
| LOKE Gimnasia Erritmikoa Larunbata. 16:00. Hernanin. |
| INFANTIL ETA ALEBINAK |
| LOKE Gimnasia Erritmikoa Igandea. 09:00. Donostiako Carmelo Balda frontoian. |



Trinkoko taldekideak Egueseko Duatloian, iaz. FOTOTRI

Datorren astean hasiko du denboraldia Trinkok

Lasarte-Oriako triatloi taldeak Eibarko Duatloian egingo du egutegiko lehen proba ofiziala. Orain pare bat urte sortu zuten elkarte, triatloiarren bueltan dabiltzan herritarrek batzeko. "Taldea giroan kirola egitea da guk eskaintzen guguna"

Adrian Garcia

Triatloiko denboraldia hasi da Euskal Herrian, Sopelako Duatloiarekin. Trinko taldeko kirolariak lehen hasteko prest daude, baina proba ofizial batean ikusteko zerbait gehiago itxaron beharko da. Martxoaren 2an Eibarko Duatloian egingo dute debuta, hurrengo asteburuan.

Elkarte berria da Trinko, baina lasterketa ugaritan ikus daitezke haien elastiko berdeak. Orain bi urte inguru sortu zuten, triatloian ibiltzen diren herritarrek batzeko helburuarekin. Aurretik zikloturisten bilgunea zen. "Batuzuek triatloia egiten genuen. Ikusi genuen gero eta gehiago ginela, eta talde bat ateratzea erabaki genuen", azaldu du Asier Gorostegik, Trinkoko sortzailetako batek.

Asko dira triatloia bere kasa entrenatzen dutenak. Izan ere, bakarkako kirola da. Halere, beste diziplina askotan bezala, talde lana oso garrantzitsua da. "Taldea giroa da guk eskaintzen duguna, talde bateko partaidea izatea". Egun, hamalau pertsonak

osetzen dute Trinko. Gorostegik uste du Lasarte-Oria bezalako herri batentzat kopuru txikia dela. Taldea berria izatea izan daiteke arrazoi bat. "Donostia oso gertu dugu. Gainera, aurretik beste elkarteetan dabiltzan triatletak badaude herrian, baina zaila da horiek erakartzen, ohitura batzuk hartu dituztelako dagoeneko".

Talde giroa

Horrez gain, Gorostegik badu beste arrangura bat: emakumerik ez da taldean. "Badaude triatloian ibiltzen diren emakumeak hemen, baina kanpoko taldeetan aritzen dira. Izan genituen hiru emakume, baina utzi egin zuten". Esaterako, Pili Bodegas eta Maria Mendibe beste taldeetan aritzen dira. "Gustatuko litzaiuke gurekin izatea, baina zaila da. Azken finean, lagun talde bat gara, ez dugu lokalik ez ezer". Epe ertainera begira emakumeak taldean biltzea espero dute.

Baina giroa ez da Trinkok eskaintzen duen gauza bakarra. Buruntzaldea IKTrekin akordio

bat dute, eta, horren arabera, triatloian lehen urratsak egiteko interesa duten igerilariak taldean sarbidea dute. Trukean, triatloilariak aukera dute Buruntzaldeako master atalean entrenatzeko. "Entrenatzaile zerbitzua eskaintzen dugu. Master taldean entrenatzen dugu, eta korrika eta txirrindularitzako entrenamenduekin osatzen dugu".

Harreman horren adibide da Iñigo Ibarburu. Distantzia luzeko Euskal Herriko txapelduna da Buruntzaldea IKTrekin, eta aurten Trinkorekin aterako du federazioko lizentzia. "Esprint probetan arituko da. Igeriketako zatian presentzia emango dio taldeari", dio Gorostegik.

Kirol bakarra da triatloia, baina hiru modalitate uztartzen ditu. Horregatik, beste elkarteekin elkarlanean aritzeko aukera zabalak eskaintzen ditu. "Asmoa da beste taldeekin sinergiak sortzea, igeriketan Buruntzaldea IKTrekin egin dugun bezala. Badakigu zaila dela, beste elkarteek bere ohiturak dituztelako, baina saiatzen gara horretan".

Esaterako, txirrindularitzako entrenamenduak normalean asteburuetan egiten dituzte, baina herriko beste zikloturistekin ere harremanetan jartzen dira irteerak egiteko. "Beste edozein herritarrek ere aukera dute gurekin etortzeko".

Korrika egiteko ez dute egun finkorik entrenatzeko. "Taldea elkartzen gara noizbehinka, baina korrika agian pertsonalagoa da. Norberak bere maila du, eta elkarrekin joateko zailagoa izaten da".

Denboraldi luzea

Triatletak kirolari osoak dira, hiru modalitateak menperatzen dituzte eta. Horregatik, haien egutegia luzea izan ohi da. Izan ere, triatloiko probak egiteaz gainera, beste hainbatetan ere parte hartzen dute, hala nola, herri lasterketetan, mendi lasterketetan, igeriketa zeharkaldietan, martxa zikloturistetan...

Triatloiko egutegiko probaie dagokionez, baten batzuk nabarmendu ditu Gorostegik.

Aurten, Iruñeako Triatloian arituko dira lau kide, *Half* distantzian. "Orain arte Zarutzen atera izan gara, baina zozketa bidez egiten da orain izen ematea, eta zailagoa da". Donostiako Onditz da beste proba berezia. "Etxe ondoan dugu, eta saiatzen gara izen ematearen erdia taldeak ordaintzen".

Distantzia luzeetan ere ariko da aurten taldekide bat: Guillermo Trombottik Gasteizko triatloi luzea egingo du (3,9 kilometro igeri, 180 bizikletan eta 42 lasterka).

Baina horietaz gain, badira bi proba egutegian gorritz seinalatu dituztenak: Nafarroako Egueseko Duatloia, eta Senperekoa, Lapurdin. Biak taldekakoak dira. "Bi horietan beti egoten gara. Helburua ez da bakarrik lehiatzea. Talde giroa sortzeko balio dute, eta triatloian bakarrik aritzea ausartzen ez denarentzat aukera ona izaten da". Senperekoa bereziki du gustuko Gorostegik. "Gure familiarekin elkartzen gara, egun pasa. Egun polita izaten da".

Illarramendi, Euskadiko txapeldun

Beteranoetan parte hartu duen guztietan txapela jantzi du, hiruzpalau aldiz guztira. Eta aurten ere ez du hutsik egin. Andoni Illarramendi lasarteoriatarak Euskadiko Duatloi Txapelketa irabazi du Sopelan, beteranoen kategorian. Bizkaiko herriko kaleetatik barrena 5 kilometro korrika, 20 kilometro bizikletan eta azkenik beste 2,5 kilometro korrika egin behar izan dituzte kirolariak. Andoingo Zumeatarrak taldean aritzen da Illarramendi.



Illarramendi, podiumean. FESTAK.COM

Ordubete baino gutxiago behar izan du Lasarte-Oriako atletak ibilbidea osatzeko. Saillkapen orokorrean hamahirugarren sartu da, eta beteranoetan bigarren. Halere, lehen postuan sartu denak Frantziako herritartasuna du, eta, honenbestez, Euskadiko txapela Illarramendik jantzi du.

"Esprint modalitatea da, oso azkarra. Hor ez dago estrategiarik. Topera hasi, eta topera bukatu behar da", esan dio Illarramendik TXINTXARRI-ri. Normalean, duatloian korrikalari finak aritzen dira ongi. "Ez da triatloian bezala; igerilariak ibili ohi direla aurrean".

Helmuga gurutzatu duen arte ez da jabetu txapelketa irabazi duela. "Denak dortsal berberarekin ateratzen gara, zaila da antzematea zein den beteranoa eta zein ez". 40 urtetik 50 urtera bitartekoan kategorian aritzen da Illarramendi. Tarte zabala da: "Beteranoetan lehengo egin duen frantsesak [Anthony Zarrak] 39 urte ditu, 40 egiteko. Ni baino sei urte gazteagoa da".



Sevillano eta Martin ahizpek Euskadirekin banakako probatan eta erreleboetan parte hartu dute. BURUNTZALDEA IKT

Sevillano eta Martin ahizpak, markak hobetzen

Paula Sevillanok, Leire eta Ainhoa Martin ahizpek bederatzi marka pertsonal ondu eta taldeko zortzi errekor berri ezarri dituzte Erkidego arteko Espainiako txapelketan. Asteburu honetan, Leire Martinek Distantzia Luzeko Espainiako txapelketan arituko da

Txintxarri

Paula Sevillano, Leire eta Ainhoa Martin ahizpak Erkidego arteko Espainiako Txapelketan lehiatu dira, Oviedon. Buruntzaldea IKTko igerilariak Euskadiko Selekzioa ordezkatu dute, eta hainbat marka ondu dituzte.

"Ez da batere balantze makala, igerileku luzean egiten duten denboraldiko lehen txapelketa dela kontutan izanik eta, batez ere, Neguko Espainiako Txapelketak prestatze bidean, lan karga handieneko momentuan daudela kontuan hartuz", adierazi du Borja Apeztegia Buruntzaldea IKTko entrenatzaileak.

Ainhoa Martinek bular estiloko 100 metro proban marka pertsonala egin du 1:13,64rekin, eta Euskadiko errekorretik oso gertu geratu da. Proba honetan sailkapeneko lehena izan da. Estilo bereko 200 metroko proban bere marka berdintzea lortu du 2:43,11 denborarekin, eta lau estiloetako 400 metroetan aurreko marka birrindu du (5:13,81). Azken proba honetan bigarren

sailkatu da Ainhoa, eta bular estiloko 200 metrokoan, berriz, hirugarren.

Leire Martinek lau probatan parte hartu du. Estilo libreko 400 metro proban 4:38,60an utzi du bere marka, eta 200 metrokoan, berriz, 2:13,73an. Tartean 100 metroko marka ere hobetu du (1:05,68). Leire zazpigarren postuan sailkatu da bizkar estiloko 100 eta 200etan, eta baita 400 librean ere. 200 librean, aldiz, hirugarren marka onena egin du, postu hori bera eskuratu.

Paula Sevillanok egindako probatan aurreko marka hobetzea lortu du. Estilo libreko 400 metroetan 4:45,80ko marka pertsonal berria lortu du, eta laugarren sailkatu da. 800 metrokoan, aldiz, 9:52,04ko marka berria eta zortzigarren postua eskuratu du.

Erreleboetan

Euskal taldeari banakako probatan egindako aportazioak gain, erreleboetan ere erabakigarriak izan ziren.

Paula Sevillano eta Leire Martin 4x200 metro libre proban parte hartu dute. Paulak egin du lehen posta, eta marka pertsonala egitea lortu du 2:16,46rekin. Tartean 100 metroko denbora ere hobetu du (1:05,36).

Estilo libreko 4x100 proban Ainhoa eta Leire Martin hirugarren eta laugarren postatan egin dute salto, erregistro bikaina lortuz. Azkenik, lau estiloetako 4x100 proban, Ainhoak bular estiloko 100 metroko erreloboia egin du.

Asteburu honetan bi hitzordu garrantzitsu dituzte Buruntzaldea IKTko igerilariak. Batetik, larunbatean Leire Martin Distantzia Luzeko Espainiako Txapelketan izango da, Mataron. 3.000 metroko lasterketa du zain.

Bestetik, gainontzeko igerilariak asteburu osoan Irunen izango dira, Gipuzkoako Neguko Txapelketan. Iganderako Leire Martin ere itzuliko da, Irunen lehiatzera.

Raul Gomez lasterkaria, garaile IV. On Bosco krosean

Zumaiako Herri Lasterketan hirugarren ere izan da herritarra. Hainbat probatan izan dira lasarteoriatarrek

Txintxarri

Asteburuan hainbat mendi eta herri proba jokatu dira, eta lasarteoriatarrek haien indarrak jarri dituzte proban.

Raul Gomez Margallo izan da emaitza hoberenak eskuratu dituen. Urnietako IV. On Bosco krosean garaipena erdietsi du, segundo gutxigatik.

Hasieratik lasterketa buruan izan da herritarra. Azken metroetan Juan Luis Gallego urnietarrak hartuko zuela zirudien, baina herritarrek lehen postuari eutsi dio, 23:44 denbora eginez. Gallego segundu batera iritsi da. Hirugarren Ibai Alba hernaniarra izan da, 23:48.

Larunbatean, berriz, Zumaiako XXXIV. herri lasterketan hirugarren izan da Margallo lasterketa orokorrean; beteterano mailan berriz, lehena.

Lasterketa honetan Gorka Gil (36:38) eta Jon Presa (38:06) herritarrek ere parte hartu dute.

Mendi lasterketak

Zestoan KobazKoba mendi lasterketa jokatu da. 25 km-ko proban Beñat Los Arcos (2:34:34) eta Iñaki Letamendi (3:27:06) helmugara iritsi dira, eta 13 km-ko proban aldiz, Jose Antonio Lasa (1:58:43).

V. Lezo-Jaizkibel mendi lasterketan ere hainbat herritarrek egin dute lasterka. Hauek izan dira helmugara iritsi direnak: Ricardo Marcos, 01:26:48; Xabi Carcedo, 01:28:23; Javier Olazagoitia, 01:31:01; Mikel Izagirre, 01:34:00; José Ignacio Elvira, 01:34:08; Yosú Galdos, 01:37:53; Juan Mari Marcos, 01:37:57; Igor Sevillano, 01:40:23; Diego Elvira, 01:45:37; Iker Elorza, 01:45:37; Miguel Granada, 01:48:28; Javier Blazquez, 01:48:33; Anabel Eleno, 01:53:04 eta Ibon Gorraiz, 02:01:08.

Babyauto Zarautz, garaipenaren bidean berriro ere

Vigoko Kaleido Universidade taldeak Babyauto Zarautz taldearen hutsak ordaindu ditu. Urtea hasieratik Zarauzko taldeak ez zuen garaipenik erdiesten, eta larunbat honetan, sailkapeneko azken taldearen aurka 26-0 irabazi du. Beltzak taldeak defentsa lan ona egin, eta ez dio arerioari aukerarik eman.

Rekondo anaiak, Unai Urruzola eta Adrian Apaolaza izan dira norgehiagokan.

Garaipen honek sailkapeneko hirugarren postuan jarri du Babyauto Zarautz. Horri esker, igoera fasean egoteko aukerak mantentzen ditu, eta asteburu honetan, Santanderren du aurrera pausoa emateko aukera. Bathco Santander, ligako bigarren sailkatuaren aurka neurtu beharko ditu indarrak Zarauzko taldeak. Lehia polita ikusi ahal da.

Espainiako Kiroletako Saria jaso du Maialen Chourraut piraguistak

Maialen Chourraut piraguistak 2016 urteko Espainiako Kiroletako Saria jaso zuen astelehenean, El Pardoko Errege jauregian.

Letizia erreginak bere izena daraman saria eman zien Chourraut eta Lidya Valentin halterofilari.

Era honetara, piraguista lasarteoriatarrek Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetan ur

bizietako K-1 mailan irabazitako urrezko domina eta 2016an egindako lana aitortu dute.

Maialenek jakitea eman duenez, epe motzera, Rio de Janeiroko Munduko txapelketa du buruan. Epe luzeagora berriz, hurrengo urtean La Seu d'Urgellen antolatuko den mundiala, Tokioko Olinpiar Jokoetako txartelak bertan banatuko baitira. Bi kanalak ezagunak ditu herritarrek, eta gogor ari da lanean ber helburuak lortzeko.

ZORION AGURRAK



Eire
Zorionak printzesa!!! Ondo pasa zure 8. urtebetetzean. Muxu pila bat familiaren partetik.



Richard
Begoña, Patxi, Imanol, Itziar, Pablo eta Maitearen partetik, zorionak zure urtebetetzean, baita Urrezko danborrengatik ere.



Hodei
10 muxu potolo zuretzat. Unai, Aizpea aitabxo eta amatxoren partetik.



Bea
Zorionak Bea!! Oso ondo pasa zure urtebetetzean. Muxu handi bat zure lagunaren partetik.



Garoa
Zorionak marisorgin! Primeran ospatu zure urtebetetzea! 8 muxu potolo!!!



Jon Pello
Zorionak artekari!!! 27 txobx gorri!!! Oso ondo pasako zenulakoan. Ttakuneko lankideen partetik.



Aiora
Hiru muxu potolo zure hirugarren urtebetetzean, familiaren partetik.



Raul
Zorionak guapisimo! Etxeko kirolari onenarentzako mila muxu denon partetik. Aitabxo asko maite zaitugu. Amaiur, Ekain eta amatxo.



Luixito
Zorionak Lu! Dagoeneko hogeitadanak... sagardoa ere oraintxe omen dago bere onenean, gu bezala; aprobetxatu beharko dugu, ezta?



Ibai
Zorionak guapo!!! Lau muxu handi etxeko lauen partez... Oso ondo pasa zure festarekin.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK

Udane Sarasola Perez. Otsailaren 14an.
June Majarres Lasa. Otsailaren 13an.
Ingrid Fernandez Gonzalez. Otsailaren 12an.
Egoi Quintana Irastorza. Otsailaren 8an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 23 ORUE
Larunbata, 24 ACHA-ORBEA
Igandea, 25 ACHA-ORBEA
Astehena, 26 DE MIGUEL
Astearte, 27 LASA
Asteazkena, 28 GIL
Osteguna, 01 URBISTONDO

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Castilla-Larburu: Urbietakalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINITZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

HILDAKOAK

Hortensia Gallardo Santos. Otsailaren 21an.
Mariano Valle Casado. Otsailaren 21an.
Damian Golmayo Arriola. Otsailaren 17an.
Mercedes Gomez Encinas. Otsailaren 15an.

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 7 | 2 | 4 | 8 | |
| 5 | | | 1 | | | 7 | | 2 |
| 7 | 2 | | 3 | | | | | |
| 3 | 5 | | 6 | | | 8 | 4 | |
| 8 | 7 | 6 | 4 | | 9 | | 2 | 5 |
| | | 1 | | | 8 | | 6 | 7 |
| | 8 | | 7 | 4 | | 6 | | |
| 4 | | | | 6 | 3 | | 7 | 8 |
| 6 | | 7 | | | 5 | | 1 | 4 |

OHARRAK

Odol ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, otsailaren 26an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetzte, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Galizia eta Portugalera bidaia

Biyak Bat elkarteak bidaia antolatu du Galizia eta Portugaleko iparraldera, maiatzaren 27tik ekainaren 5era.

Elkarteko bazkideek 530 euro ordaindu behar dituzte; bazkideak ez direnek, berriz, 580 euro.

Izena ematea elkarteko bulegoan

egin behar da astelehenetik ostiralera, 10:30etik 12:30era.

KOMIKIA



ESKELAK

OROIGARRIA

Miren Txurruka Agirrezabala

2018ko otsailaren 16an hil zen, 82 urte zituela.

Besarkada handi bat familiari, Ttakun osoaren partetik.

Ttakun Kultur elkarte

ESKELAK JARTZEKO:
Txintxarri erredakzioan
943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan

AZOKA TXIKIA


ETXEBIZITZA
ERRENTAN EMAN
Auto eta motoak gordetzeko garaje marra alokatzen da, Esperantza plazan. 659021945.

LANA
ESKAINZA
Umeak zaindu edota klase partikularrak emateko prest. Magisteritza ikasia, esperientzia umeekin eta euskalduna. 658 727 669.

ESKAERA
Interno gisa lan edo orduka egingo nuke lan. 617 853 042.

Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. 677768682

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

| Antxisu | Zabaleta | Atsobakar | Kotxerak |
|---------|----------|-----------|----------|
| 08:00 | 08:10 | 08:15 | 08:20 |
| 08:40 | 08:50 | 08:55 | 09:00 |
| 10:30 | 10:40 | 10:45 | 10:50 |
| 11:00 | 11:10 | 11:15 | 11:20 |
| 11:30 | 11:40 | 11:45 | 11:50 |
| 12:05 | 12:15 | 12:20 | 12:25 |
| 12:30 | 12:40 | 12:45 | 12:50 |
| 13:00 | 13:10 | 13:15 | 13:20 |
| 13:30 | 13:40 | 13:45 | 13:50 |
| 16:30 | 16:40 | 16:45 | 16:50 |
| 17:00 | 17:10 | 17:15 | 17:20 |
| 19:30 | 19:40 | 19:45 | 19:50 |
| 20:00 | 20:10 | 20:15 | 20:20 |

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administrataria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Inigo Gonzalez, Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea
Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak
Ioar Gainza, Amets Agirre, Ander Huegun, Maialen Goikoetxea.

PUBLIZITATEA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Legu Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 23

HERNANI Dokumentala

Baskavigin. Euskal baleazaleen hilketak dokumentala ikusgai izango da. Aitor Aspe Fiden film dokumentala da, *Spánverjavigin* izeneko sarraskian oinarritua. Sarrera, 4 euro.

Biteri kultur etxea, 19:00etan

DONOSTIA Kontzertua

Jean Mixel Bedaxagarrek *Belatxa* diska aurkeztuko du. Mixel Etxekopar (ahotsa, xirula eta ttuntuna) eta Sacha Standen (arrabita eta pianoa) izango ditu oholztan lagun. Sarrera, 9 euro.

Lugaritz kultur etxea, 20:00etan

HERNANI Hernani'n Musik

Morau eta mugaldekoak taldearen kontzertua. *Hernani'n Musik* ekimeneko ekintza. Sarrera otsailaren 13tik salgai, 7,5 euro. Milagrosa, 22:00etan

LARUNBATA 24

LASARTE-ORIA Jardunaldia

Ile-apainketa eta estetika I. jardunaldia antolatu du Aterpea merkatari elkarteak.

Manuel Lekuona, 18:30ean

ANDOAIN Piano Jaialdia

Andoaingo XIII. Piano jaialdia antolatu dute. Asteburu musikala, piano musika entzun ahal izateko, piano jotzaile gazteen eskuetatik. Bastero kulturgunea, egun osoa

USURBIL Kantu-jira

Kantu taldeak antolatuta, kantu-jira egingo da Usurbileko kaleetatik zehar. Herritar orok parte har dezake.

Mikel Laboa plaza, 12:30ean

DONOSTIA Tailerra

6 eta 12 urte arteko gazteek arkeologia jolasen bidez deskubritzeko aukera izango dute. Arantzadi Zientzia elkarteak antolatutako ekintza doakoa da.

San Telmo museoa, 17:00etan

DONOSTIA Dantza

Kukai dantza taldeak dantza eta zinema bateratzen dituen *Oskara plazara* ikuskizuna eskainiko du. Sarrerak, 10 eurotik 16 eurora. Antzoki Zaharra, 20:00etan



LASARTE-ORIA Ile-apainketa eta estetika I. jardunaldiak. Jardunaldi honetan ile-apainketa eta estetika sesioak zuzenean ikusteko aukera izango da. Ostean, desfilea egingo dute. Marbell pelukeria, Christian estilistak, Marian Olaizola ile apaindegiak eta Ana gizonen ile apaindegiak parte hartuko dute eta Aterpeko beste dendak laguntza eskainiko dute. Sarrera doakoa da.

Manuel Lekuona, 18:30etik 20:00etara

ASTIGARRAGA Antzerkia

GluGlu producciones taldeak *Martes y 13* lana eskainiko du. Sarrera, helduek 6 euro; adin txikikoek 3 euro.

Kultur etxean, 20:00etan

IGANDEA 25

LASARTE-ORIA Andaluzia eguna

Otsailaren 28ko Andaluzia eguna ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Semblante Andaluz elkarteak: **11:00etan**, Meza rozieroa, Arantzazuko Ama Birjina elizan.

14:00etan, Bazkari herrikoia.

17:00etan, Paco Carrion, Petri Fuentes eta J. A. Vegaren emanaldia. Semblante Andaluz, egun osoa

ANDOAIN Piano Jaialdia

Andoaingo XIII. Piano jaialdia antolatu dute. Asteburu musikala, piano musika entzun ahal izateko, piano jotzaile gazteen eskuetatik.

Bastero kulturgunea, egun osoa

HERNANI Iñude eta artzainak

Iñude eta artzainak konpartsaren irteera. Urumea ikastolak antolatua. Hernanin zehar, 11:45ean

ASTIGARRAGA Txotxongiloak

Rosa Martinez eta konpainiak *Nahia eta Neo* txotxongilo antzerkia eskainiko du. Hiru urtetik aurrerako haurrentzat. Sarrera, haurrek 2,5

euro; helduek 5 euro.

Kulturetxean, 17:00etan

URNIETA Antzerkia

Dejabu panpin laborategiak *Linbo planeta* antzezlan eskainiko du. 6 urte baino gehiagoko haurrei zuzendua. Sarrera, 3 euro. Sarobe gunea, 17:00etan

DONOSTIA Dantza

Kukai dantza taldeak dantza eta zinema bateratzen dituen *Oskara plazara* ikuskizuna eskainiko du. Sarrerak, 10 eurotik 16 eurora.

Antzoki Zaharra, 19:00etan

ASTELEHENA 26

LASARTE-ORIA Itsaspeko zinema

Nazioarteko Itsaspeko VII. zinema zikloaren azken saioa eskainiko da. Lehenik CIMASUB 2017 argazki lehiaketako irabazleak ikusiko dira. Ostean, hiru film labur eta film luze bat ikusi ahalgo dira: *Marea gorriak*, *Cabo de Palos: Balkoi bat Mediterraneora*, *K-Komodo and beyond* eta *Ispliu likidoa*. Manuel Lekuona, 19:00etan

ASTEAZKENA 28

LASARTE-ORIA Andaluzia eguna

Otsailaren 28a, Andaluzia eguna ospatzeko ohorezko ardo eskainiko diete udal ordezkari eta lagunei. Semblante Andaluz, 20:00etan

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

El sacrificio de un ciervo sagrado
Ostirala: 22:00.

Sola

Igandea: 17:00.

Que baje Dios y lo vea

Igandea: 19:30.

USURBIL

URBIL

Yo, Tonya

Ostirala:

15:50, 20:15,

22:30, 00:55.

Larunbata:

15:50, 20:15,

22:30, 00:55.

Igandea: 15:50,

20:15, 22:30.

Lady Bird

Ostirala: 16:15,

18:15, 20:15,

22:40, 00:40.

Larunbata: 16:15,

18:15, 20:15,

22:40, 00:40.

Igandea:

16:15, 18:15,

20:15, 22:40.

Todo el dinero del mundo

Ostirala:

16:35, 19:15,

21:55, 00:35.

Larunbata:

16:35, 19:15,

21:55, 00:35.

Igandea: 16:35,

19:15, 21:55.

Black Panther

Ostirala: 16:10,

17:35, 19:00,

22:00, 00:00.

Larunbata: 16:10,

17:35, 19:00,

22:00, 00:00.

Igandea:

16:10, 17:35,

19:00, 22:00.

Cavernicola

Ostirala: 18:15.

Larunbata: 18:15.

Igandea: 18:15.

Cincuenta sombras liberadas

Ostirala: 16:00,

18:15, 20:30,

22:45, 01:00.

Larunbata: 16:00,

18:15, 20:30,

22:45, 01:00.

Igandea:

16:00, 18:15,

20:30, 22:45.

Coco

Larunbata: 15:45.

Igandea: 15:45.

El corredor del laberinto: La cura mortal

Ostirala: 22:15.

Larunbata: 22:15.

Igandea: 22:15.

El cuaderno de Sara

Ostirala: 20:10,

22:35, 01:00.

Larunbata: 20:10,

22:35, 01:00.

Igandea:

20:10, 22:35.

Ferdinand

Ostirala: 18:00.

Larunbata: 18:00.

Igandea: 18:00.

La abeja Maya: Los juegos de la miel

Ostirala: 15:45.

Larunbata: 15:45.

Igandea: 15:45.

La forma del agua

Ostirala:

16:15, 18:50,

21:25, 00:50.

Larunbata:

16:15, 18:50,

21:25, 00:50.

Igandea: 16:15,

18:50, 21:25.

Perfectos desconocidos

Ostirala:

15:45, 20:25.

Larunbata: 20:25.

Igandea: 20:25.



LABURPENA

El sacrificio de un ciervo sagrado

Zuzendaria: Yorgos Lanthimos. **Gidoilariak:** Yorgos Lanthimos, Efthymis Filippou. **Herr.:** Erresuma Batua (2017). **Aktoreak:** Colin Farrell, Nicole Kidman, Barry Keoghan, Raffey Cassidy, Sunny Suljic, Alicia Silverstone, Bill Camp. **Iraupena:** 121 minutu.

Erabaki gogorak hartu behar dira

Steven kirurgialari trebea da. Bere emaztea Anna izen handiko oftalmologoa da eta bi seme-alaba ditu, Kim eta Bob. Zoriontsu bizi da familiarekin. Nerabe umezurtz bat ezagutuko du, Martin eta hura babestea erabakiko du. Familian eragina izango du erabaki horrek eta Stevenek erabaki gogorra hartu beharko du.

Yorgos Lanthimos zuzendariak *Canino* eta *Langosta* filmen ostean, thriller psikologikoa eta naturaz gaindiko gertakizunak nahasten dituen kontakizuna dakar. Lanthimosen hitzetan: "sakrifizioaren ideia landu nahi nuen. Jendeak egunero dilema

handiei egin behar die aurre eta, hauek beti dakartzate sakrifizioak". Gidoia idazten duen heinean istoria ezagutzen omen du eta amaieran erantzunik gabeko galderak geratzeko gustuko duela ere adierazi du *El sacrificio de un ciervo sagrado* filmeko zuzendari eta gidoiariak.

Langosta filmaren antzera, aktore ezagunak aukeratu ditu zuzendari grekoak filmeko protagonistak izateko. Colin Farrell eta Nicole Kidman dira Steven eta Anna, bikote protagonista.

El sacrificio de un ciervo sagrado filmak Canessko Zinema Jaialdian gidoi onenaren saria lortu zuen eta Sitgesen kritikaren saria.

HITZARTUTAKO 15 ETXEBIZITZEN SUSTAPEN BERRIA LASARTEN

Donostiatik 6 minututara besterik ez



IZENA EMAN
ZOZKETARAKO

Martxoaren
01 arte
duzu epea.

KOMUNIKAZIO HOBERENAREKIN ETA PARAJE NATURAL BATEAN



URBIL MERKATAL GUNEA



ANBULATEGIA



BIDE GORRIA



HAUREN PARKEA



KIROLDEGIA



SANTA BARBARA

PREZIO PAREGABEA ZURE ETXEBIZITZA BERRIARENTZAKO

3 LOGELATAKO ETXEBIZITZA
+ GARAJEA + TRASTELEKUA

212.000€ tik +BEZ

250 familia baino gehiagok
gozatzen dute Lasarteko auzo
berriaz, Donostiatik pauso batera.



Infografia hau(ek) aldatua izan daiteke proiektu teknikoetan

Informazio gehiago

943 36 89 42

www.zabaletaberri.es

residencial

zabaleta

berri
bizigunea

